

KAPITALAREN MINTEGIA

11. SAIOA

ZAZPIGARREN ATALA

XXIV KAPITULUA. JATORRIZKO METAKETA DEITURIKOA

1. Jatorrizko metaketaren sekretua.

Marxek hemen, handi-handika, ekoizpen modu kapitalistaren sorrera-prozesu historikoa azaltzen du. Kapitalismoaren aukerarako baldintzak nola eman ziren argitzea du asmoa, hau da, ekoizpen baldintza burgesak lehenengoz sortu zituen prozesu historikoa (egun produkzio moduak berak erreproduzitzen dituen berberak baina prozesu historiko partikular baten bidez sortu zirenak).

Aldi berean, Marx Ekonomia Politikoaren azalpena gezurtatzen saiatzen da; *jatorrizko metaketa* deitu diezaiokegun izaera mitikoko hura. Ekonomista klasikoen bertsioaren arabera, klase bereizketa modernoa, hots, *kapital harremana* (alde batetik ekoizpen bitartekoen jabeak direnak eta bestetik lan indar desjabetua) antza “behinola, batetik, langile bakar batzuk, inteligenteak eta batez ere aurreztaileak zirenak, eta, bestetik, zutena baina gehiago xahutzen zuten alferrontzi nagi batzuk egon izanean” datza. Beraz, aberatsak aberatsak dira hala irabazi dutelako eta pobreak, berriz, pobreak alferrak izateagatik. Ostera, historiaren interpretazio idiliko honen kontrara, errealitatea eskubidearen eta lan burgesen utopiara murrizten duena, Marxek datu errealak kontrajartzen ditu; egungo klase bereizketaren jatorria biolentzian eta dominazioan oinarritzen dela argitzen duten datuak.

Marxek baieztatzen du kapital harremanak langileen eta jabetzaren (bitartekoena nola lan prozesuaren gaineko jabetzaren) arteko bereizketa aurreuposatzen duela. Hortaz, ekoizpen modu kapitalista sortu zuen prozesu historikoa langileak eta bere lan bitartekoak bereizten dituen prozesua da. Marxek bereizketa bat planteatzen du: alde batetik, kapitalaren aurrehistoria edo bere eraketa prozesua, eta bestetik, ekoizpen eredu kapitalista garatua (zeinetan ekoizleen eta ekoizpen bitartekoen arteko disoziazioa produkzioaren martxak berak erreproduzitzen duen, metaketa ziklo bakoitza jatorrizko metaketa bat bailitzan).

Ekoizpen modu kapitalista, Marxen arabera, estruktura ekonomiko feudalaren desegitearen fruitua da. Halako moduz non soldatapeko langileak, ekoizle modernoak, morrontza erlazioetatik askatuak izan behar duten, baita gremio berantiarretatik ere. Morrontzatik, gleetatik eta gremioetatik emantzipatzeak ez du langileen askatasuna inplikatzeko, hauek ez baitute aske izateko nahitazeko baldintza ekonomikorik. Desjabetza, Marxek dioen bezala bi zentzutan aske izatea (zentzu juridikoan eta jabetzarik ez izateko zentzuan), esklabutzaren forma modernoa da.

Marxek adierazten du prozesu honen oinarria “landa ekoizlearen, nekazariaren, lurrak desjabetzean” datzala eta dio “ekoizpen kapitalistaren lehen zantzuak badaude, [...], XIV eta XV mendeetan Mediterraneoko zenbait hiritan, aro kapitalista XVI mendetik aurrerakoa den arren”.

2. Landa-populazioaren eta bere lurren desjabetzea.

Atal honetan Marxek, oro har Europa erdialdeko herrialdeetan eta Ingalaterran ardaztuz, xehetasunez kontatzen dizkigu aro feudalari zegozkion nekazaritza-ekoizpen erlazioak abolitu zituzten zenbait prozesu historiko (XV, XVI, XVII eta XVIII mendeetan jazotakoak). Marxek modernitatearen historian proletarioz osatutako masa zabalak nola “askatu” ziren azaltzen duen atal historiografikoa da hau, jatorriz landa eremuetakoak zirenak eta hirietako langile izaten amaitu zutenak. Kasu askotan azaltzen du, adibidez: gerora proletarioak izango ziren horiek lurraren jabetzarekin zituzten loturak nola desagertu ziren, larreen eta basoen ustiaketa komunalen debekua, ondasun eklesiastikoen jabetza juridiko eta usufruktuzkoa aldatzea, emigrazioari eta lan baldintzei dagokien eskubide auziak, etab.

3. Desjabetuen aurkako legislazio odoltsua, XV. mende amaieratik. Soldata-murritzapenerako legeak.

Nekazariak haien nekazal-bizi baldintzetatik kanporatu bezain pronto, ezer ez zuten desjabetuen kopurua handitu egin zen. Honela, langabe gehiago zeuden, pariak, eskaleak... hau da, moldatu gabeak. “Askatutako” masa-proletario zabalaren xurgapen sozial eta laborala ez zen bapatekoa izan, hauek diziplinatzeke eta jaio berri zen proletariotza urbanoak bere soldatapeko langile kondizio berria kulturalki asimilatu zezan prozesu historiko luze bat behar izan zen. Honen adibide dugu Enrike VII.aren erreinaldian eskaletzaren aurka onartu zuten legeria gogorra. Marxen arabera, “bortizkeriaz desjabetu zuten, bere lurretatik kanporatu zuten eta eskaletzara txikitu zuten landa-populazioa lege grotesko eta terroristen bidez soldatapeko lanaren sistemarako beharrezkoa zen diziplina batera makurtu zuten”.

Marxek azpiatal honetan ere kapitalismoaren egonkortze prozesuaren bitartean burgesiak proletariotza soldataren muga efektiboen barnean modu extraekonomikoan mantendu ahal izateko era azaldu zuen; hau da, gainbalioa erauzteko ekoizpen baldintza optimoetan. Bere arabera, hasiera batean lanak kapitalarekiko zuen subordinazioa soilik formala zen, eta gauzen egoera honetan ekoizpen prozesuaren faktore aldakorra (hau da, langileak) zen gailentzen zena. Hortaz, ekoizpen prozesua baldintzatzeko zuten gaitasuna handiagoa zen, eta horrenbestez, baita patrioarekin negoziatzeko gaitasuna ere. Beraz, “ekoizpen kapitalistaren genesi historikoan, [...], burgesia gorakorrek Estatuaren boterea behar du eta darabil soldata erregulatzeko”.

4. Maizter kapitalistaren genesia.

Maizterra, edota adiera hertsian kapitalista (proletariotzaren lan indarra gidatu eta esplotatzen duena eta ez dena ezinbestean lan prozesua burutzen den lurraren jabe, baizik eta hura erabiltzeagatik ordaintzen duena), ez da zuzenean landa-populazioaren desjabetzetik sortzen. Glebaren desjabetzeek lur-jabe handiak sortzen dituzte. Maizter modernoak, aldiz, prozesu historiko luze eta geldo baten ostean lortzen du gailentasun ekonomikoa, non aurreko azpiatalean azaldu moduko kausek esku hartzen duten. Marxek hemen soldata erlazio hori sortu zuten motibo hauetako zenbait aipatzen ditu azaletik.

5. Nekazal iraultzaren ondorioak industrian. Barne-merkatuaren sorrera kapital industrialarentzat.

XXIV kapituluaren bostgarren azpiatalean Marxek landa-populazioaren desjabetzearen bi berehalako efektu aztertzen ditu: 1) Lur-kultibadoreen gutxitzeak, hau da, masa zabal proletarioen askatzeak, nekazal-ustiapenaren errendimendu ekonomikoa areagotzen du

("lurraren jabetzaren gaineko erlazioetan emandako iraultza laborantza-metodoen hobekuntzekin batera eman zelako"). Eta 2) landa-populazioaren desjabetzea, hots, ekoizlea ekoizpen- edo bizi- bitartekoetatik bereiztea, aldi berean ekoizpen harreman subsidiarioen desagertzea da (zeinetan nekazariak bere lan pribatuaren bitartez lortutako produktuaren zati batekin bere bizitza erreproduzitzen duen). Soldatapeko lan forman ekoizleari ez dagokionez honek ekoiztutako merkantzien zenbatekorik, orain produktu hauen baliokidea lortu behar du bere nagusi berriaren bitartez, ondoren, merkatuan erosteko. Landa eremuko ekonomia etxetiarraren amaierak, Marxen arabera, *barne merkatuaren* aukerak sortzen ditu: "Nekazari txikiak soldatapeko langile bihurtzen dituzten gertakizunek eta hauen bizi eta lan bitartekoak kapitalaren elementu material bihurtzen dituzten gertakizunek, une berean kapitalaren barne merkatua sortzen dute".

6. Kapital industrialaren genesisia.

Azpiatal honetan Marxek argi azaltzen du ekoizpen modu kapitalistaren genesi historikoaren eta bere ekoizpen estruktura puru edo garatuaren arteko bereizketa. Bereizketa hau *kapital industrialaren* (hau da, lan indarra ustiatzeko forma zehazki kapitalista) jatorriaren ikerketak ezartzen du. Marxen aburuz, zehazki ekoizpen forma kapitalista kapital industrialarekin sortzen den arren, honen aurretik *lukuruzko kapitala* eta *kapital komertziala* egon ziren. Marxek dio, mendetan zehar, landa eremuko erregimen feudalak eta erregimen gremialak hiriguneetan oztopatu egin zutela bi kapital forma hauek behar bezala *kapital industrialean* bilakatzea; erlazio sozial feudalen ezabapena eman arren, kapital komertziala kapital industrialaren posibilitate baldintza (oinarria edo kausa eratzaila) izan zen: "Gaur egun, nagusitasun industrialak berekin dakar gailentasun komertziala. Manufaktura-garaian, kontrara, gailentasun komertziala zen gailentasun industrialak ematen zuena".

Harreman sozial feudalek kapitalismoaren geroko forma mugatzen zutenez, hau da kapital industrialak, Marxek azpiatal honetan azaltzen du nola erabili zuen burgesiak orduan lortutako botere politikoa "ekoizpen modu feudala kapitalista bilakatzeko prozesua artifizialki sustatzeko". Horri dagokionean, aipatzen du burgesek erabili egin zutela "Estatuaren boterea, gizarteko bortizkeria kontzentratu eta antolatua". Modu honetan, biolentzia indar ekonomiko modura ulertzen du, "gizarte berri bat sabelean daraman gizarte zahar ororen emagina".

7. Metaketa kapitalistaren joera historikoa.

Marxek jarraian jabetza forma ezberdinak ezberdintzen ditu, ekoizpen moduaren eta ekoizpen prozesuaren kontrolaren arabera. Horrekin batera, jabetza forma horiek, alde batetik, ekoizpen modu kapitalistaren genesi historikoan eta, bestetik, honen etorkizuneko tendentzietan kokatzen ditu. Lehendabizi, *jabetza pribatua* ("lan bitartekoak eta hauen kanpo-baldintzak pertsona pribatuen jabetza dira") eta *jabetza sozial* edo *kolektiboaren* arteko bereizketa azaltzen du. Marxen arabera, historikoki prozesuaren eta ekoizpen bitartekoen jabetza bi hegal hauen (edo jabetza formen) artean kulunkatu da, eta forma konplexuetan batera existitzera ere heldu dira.

Azpiatalaren tesi nagusia honako hau da: jabetza pribatu kapitalista jabetza pribatu indibidualaren gaindipena da (bakoitzaren lan pribatuaren apropiazio zuzenean oinarritzen dena); alta, ekoizpen prozesua sozializatu bada ere (oroi bedi langileen arteko kooperazioa edota lanaren banaketaren garapen handia nazio mailan zein nazioartekoan), jabetza norbanako indibidualena da oraindik ere (burgesak). Beraz, kapitalismoak jabetza pribatu forman garatutako ekoizpen indarren kontrol indibiduala (baina ez jabetza pribatu indibiduala) berrezartzean datza. Honela azaltzen du Marxek: "jabetza kapitalista, jada ekoizpen metodo

sozialetan oinarritzen dena, jabetza sozialean bilakatu behar da. Han espropiatzaile gutxi batzuek masa popularrak desjabetzen zituzten [landa-desjabetzea], hemen berriz, masa popularrak usurpatzaile gutxi batzuk espropiatzean datza”.

XXV KAPITULUA. KOLONIZAZIOAREN TEORIA MODERNOA.

XXV kapitulua Kapitala lanaren lehen tomoaren azken kapitulua da. Bertan Marxek ekonomialari burgesek kolonien egoera ekonomikoa interpretatzerakoan duten jarrera inpugnatzen du; Marxen arabera, ekonomialari hauek garapen kapitalista aurreratua duten herrialdeetan bakarrik zentzua hartzen duten kategoria ekonomikoen bidez ulertu eta azaldu nahi dute kolonizatutako herrialdeen ekonomia (edo bizirauten eta osatzen duena, ekonomia kolonialarekin batera). Kolonizatutako herrialdeen ekonomiaren eta hertsiki kapitalista den ekoizpenaren oinarriak azaldu ostean, koloniek herrialde kapitalista aurreratuentzat betetzen duten funtzio ekonomikoa azaltzen du Marxek gaingiroki. Era berean, kolonien garapen aukerak azaltzen ditu.